



EBAZPENA, 2021EKO MARTXOAREN 22KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINEN BIDEZ ONDORENGO EBAZPENA ALDATZEN DEN: HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2021EKO MARTXOAREN 5EKO EBAZPENA, 2021/2022KO IKASTURTEAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDAKO KIDEEN MEREZIMENDUAK BIRBAREMATZEKO URTEROKO PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENEK ALEGATUTAKO MUSIKAKO-JARDUERA BAREMATU BEHAR DUEN BATZORDEA ERATZEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2021eko martxoaren 5eko ebazpenaren bitartez, 2021/2022ko ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien zerrendako kideen merezimenduak birbarematzeko urteroko prozesuan parte hartzen dutenek alegatutako musikako-jarduera barematu behar duen batzordea eratu zen.

Estitxu Oraá Martínez de Lañok ezin duela bertan parte hartu ondorioztatuta, haren ordezkari beste batzordekide bat izendatu da.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2021eko martxoaren 5eko ebazpena, 2021/2022ko ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien zerrendako kideen merezimenduak birbarematzeko urteroko prozesuan parte hartzen dutenek alegatutako musikako-jarduera barematu behar duen batzordea eratuena.

Bigarrena.- Izendatzea Carlos Seco Revilla jauna musikako-jarduera barematzeko duen batzordeko kide bezala Estitxu Oraá Martínez de Laño andrearen ordezkari.

Hirugarrena.- Aldaketa Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratzea: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila>.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 22a